



Bizilagun agurgarriak:

Udaletik zuekin harremanetan jartzen gara maiatzaren 10ean, asteartea, 18:00etan **Plazaldea eraikineko 2. gelan** antolatuko dugun parte-hartze saiora gonbidatzeko. Bileraren helburua da Hirigune Zaharreko hirigintza-zehaztapenen arau-aldaketa babestuko duen proposamen teknikoa zuei helaraztea. Aldaketa hori jasota dago EH Bilduk eta Geroa Baik legegintzaldi honetarako sinatutako Gobernu Taldearen Akordio Programatikoa. Akordio horretan ezartzen denez, "gobernu-taldeak gure gain hartzen du gure herriko Alde Zaharra babesteko konpromisoa, geratzen zaigun apurra ez galtzeko, eta urteetan zehar galtzen joan dena berreskuratzeko oinarriak jartzeko".

### Aurrekariak

1988ko azaroaren 30ean Uharteko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusi zen, Uharteko Hirigune Zaharraren inguruko hirigintzako tratamendua zein eraikinen eta materialen tipologiaren tratamendua arautuko zuen araudiari eragiten ziona. Erabaki horiek onartu zirenetik 30 urte baino gehiago igaro direnean, Udaletik ondorioztatu dugu, oro har, indarrean dagoen araudiak ez duela babestu alde zahar bati dagokion eraikuntza-estiloa, sustatzailearen esku utzi duelako eraiki beharreko eraikinaren estiloa. Hori dela eta, gure araudia berrikusiko dugu, hurrengo hirigintza-jarduketek gure herriaren zati garrantzitsu honen espiritu eraikitzailea, herri gisa dugun nortasunaren bihotza eta oroimena errespetatuko dituztela bermatzeko.

### Proposamena

Helburu hori lortzeko, Uharteko Udalak udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketa sustatuko du, udalerriko auzo zaharrari buruzko zehaztapenei dagokienez, zehazki, jarduketa-eremu horretako Eraikuntzako Baldintza Orokorren zenbait alderdiri dagokienez.

Aldaketak eremuko eraikinen eraikuntza-irizpideak doitu nahi ditu, interpretazio okerrak saihesteko eta eremuko eraikuntzaren baldintza orokorrak zehazteko.

Uharte, 2022ko apirilaren 27an

Estimados vecinos y vecinas:

Desde el Ayuntamiento nos ponemos en contacto con ustedes para invitaros a la sesión de participación que vamos a organizar el **martes 10 de mayo a las 18:00 en la sala 2 del edificio Plazaldea**. El objeto de la reunión es trasladaros la propuesta técnica que va a respaldar el cambio normativo en las determinaciones urbanísticas del Casco Antiguo. Este cambio está reflejado en el Acuerdo Programático del Equipo de Gobierno firmado entre Eh Bildu y Geroa Bai para esta legislatura donde se establece que "Desde el Equipo de gobierno asumimos el compromiso de proteger el Casco Antiguo de nuestro pueblo para no perder lo poco que nos queda del mismo, y poner los cimientos para ir recuperando lo que se ha ido perdiendo a lo largo de los años".

### Antecedentes

El 30 de noviembre de 1988 se llevó a cabo una revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Huarte que afectaba a la normativa que iba a regir el tratamiento tanto urbanístico como de tipología de edificios y de materiales en el entorno del Casco Antiguo de Huarte. Más de 30 años después de la aprobación de dichas determinaciones, desde el Ayuntamiento hemos llegado a la conclusión que, en general, la normativa en vigor no ha protegido el estilo constructivo inherente a un casco antiguo porque ha dejado a voluntad del promotor el estilo de edificio a construir. Es por ello por lo que vamos a realizar una revisión de nuestra normativa para garantizar que las próximas actuaciones urbanísticas respeten el espíritu constructivo de esta parte tan importante de nuestra villa, corazón y memoria de nuestra identidad como pueblo.

### Propuesta

Para la consecución de este objetivo el Ayuntamiento de Huarte va a promover una Modificación del Plan General de Ordenación Urbana del municipio en lo referente a las Determinaciones sobre el Barrio Antiguo de la localidad, concretamente en lo referente a varios aspectos de las Condiciones Generales de la Edificación en dicho ámbito de actuación.

La modificación pretende ajustar los criterios constructivos de las edificaciones del ámbito para evitar incorrectas interpretaciones y concretar las condiciones generales de la edificación en el ámbito.

Huarte, 27 de abril de 2022

José Antonio Beloqui Colomo

Uharteko Udaleko Hirigintza Batzordeko Burua

Presidente de la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento de Huarte

